**KLUBAREN ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA COVID-19KO OSASUN ZAINTZAKO EGOERAN FRONTOIA LEHIAKETETARAKO ERABILI AHAL IZATEKO**

Maeztun, 2021eko apirilaren 19an

**ESKU HARTZEN DUTENAK**

Alde batetik, **ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**, ARRAIA-MAEZTUKO UDALAren izenean eta haren ordezkari gisa (helbidea: Geltoki kalea, 13 eta IFK.:P0103900G), Arraia-Maeztuko udal-pilotalekuaren kudeatzaile denez. Aurrerantzean INSTALAZIOA.

Bestetik, **ALFREDO FERNANDEZ DE JAUREGUI**, Maeztuko euskal pilota klubaren presidente gisa (helbidea: Frontoi kalea eta IFK.:G01156041). Aurrerantzean KLUBA.

**ADIERAZTEN DUTE**

1. KLUBAK baimena eskatu dio instalazioari Arraia-Maeztuko udal-pilotalekua erabiltzeko, Arabako Federazioak 2021. urtean sustatutako Pilota Klubaren bidez antolatzen diren lehiaketak eta txapelketak antolatzeko.

2. INSTALAZIOAk aipatu eskaera onartu duela eta ondorengo klausulen bitartez zuzenduko dela:

**KLAUSULAK**

1. KLUBAK Arraia-Maeztuko udal-pilotalekua erabali ahal izango du Arabako Federazioak 2021. urtean sustatutako Pilota Klubaren bidez antolatzen diren lehiaketak eta txapelketak antolatzeko.

2. KLUBAk INSTALAZIOArekin erabilera ordutegi zehatzak adostu beharko ditu. Horretarako, jaialdi bakoitzaren eskaera xehatua egin beharko du, jaialdia burutu baino lehenago.

3. KLUBAk eta INSTALAZIOAk konpromisoa hartzen dute jaialdia egiten den unean indarrean dagoen COVID-19k eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoa den prebentzioari buruz Eusko Jaurlaritzak emandako aginduek eskatzen dituzten osasun arloko eta osasun

**CONVENIO ENTRE CLUB Y AYUNTAMIENTO PARA LA UTILIZACIÓN DE FRONTONES PARA COMPETICIONES EN SITUACIÓN DE VIGILANCIA SANITARIA POR EL COVID-19**

En Maestu, a 19 de abril de 2021

**INTERVIENEN**

De una parte, **ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA** en nombre y representación de AYUNTAMIENTO ARRAIA-MAEZTU (con domicilio en Calle La Estación, 13 de Maestu (Álava) y CIF.: P0103900G), como gestor del frontón municipal de Arraia-Maeztu. En adelante LA INSTALACIÓN.

De otra parte, **ALFREDO FERNANDEZ DE JAUREGUI** como presidente del club de pelota vasca de Maestu (con domicilio en C/ Frontón s/n y CIF.: G01156041). En adelante EL CLUB.

**EXPONEN**

1. Que EL CLUB ha solicitado a LA INSTALACIÓN una autorización para la utilización del frontón municipal de Arraia-Maestu para la organización de competiciones y torneos que se organicen a través del Club de Pelota y promovidos por la Federación Alavesa durante el año 2021.

2. Que LA INSTALACIÓN ha admitido la citada solicitud, que se regirá con las siguientes:

**CLAUSULAS**

1. EL CLUB podrá utilizar el frontón municipal de Arraia-Maeztu para la organización de competiciones y torneos que se organicen a través del Club de Pelota y promovidos por la Federación Alavesa durante el año 2021.

2. EL CLUB deberá de acordar con LA INSTALACIÓN los horarios concretos de uso. Para ello, deberá de realizar una solictud detallada de cada festival antes de su celebración.

3. EL CLUB y LA INSTALACIÓN se comprometen a extremar todas las medidas preventivas de salud y de seguridad sanitaria requeridas por las ordenes del Gobierno Vasco sobre prevención necesaria para hacer frente a la crisis sanitaria

segurtasuneko prebentzio-neurri guztiak zorrozteko.

4. Zehazki, KLUBAk eta INSTALAZIOAk honako puntu hauek betetzeko konpromisoa hartzen dute:

- INSTALAZIOAk lehiaketa egiteko protokoloaren eta pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurrien berri eman beharko du, frontoian informazio-kartelak jarriz.

- KLUBAk jendearentzako sarbidean eta irteeran pilaketak saihestu beharko ditu, betiere modu ordenatuan egingo direla ziurtatuz, pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruzko indarrean dauden neurriak mantenduz. Horretarako, instalazioaren sarrera eta irteeretan behar diren laguntzaileak eta kontaketa-materiala eduki beharko ditu.

- INSTALAZIOAk noranzko bakarreko zirkulazio-ibilbideak finkatu beharko ditu, bai frontoi barruan, bai sarbide eta irteeretan.

- INSTALAZIOAk garbiketa eta desinfekzio sakona egin beharko ditu aldageletan, pubilkoetarako erabiltzen diren lekuetan, komunetan eta publikoarekin kontaktua duen espazio orotan, edozein jaialdi jokatu aurretik eta ondoren.

- INSTALAZIOAk eskuak garbitzeko beharrezko elementuak izan beharko ditu instalazioaren sarreran, bai eta komunen sarreretan ere.

- KLUBAren ardura izango da pilotariek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta lehiaketatik edota beroketatik kanpo maskara erabiltzeari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.

- KLUBAren ardura izango da teknikariek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.

- Partidan erabili beharreko pilotak KLUBAk edota klub aurkariek emango dituzte. Partida amaitzean klub bakoitzak bereak desinfektatu beharko ditu, horretarako produktu egokiarekin; beharrezko materiala klub bakoitzak jarriko du.

ocasionada por el COVID-19 en vigor en el momento de la celebración del festival.

4. En concreto, EL CLUB y LA INSTALACIÓN se comprometen a cumplir los siguientes puntos:

- LA INSTALACIÓN deberá informar del protocolo para la celebración de la competición y de las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla, mediante la puesta de carteles informativos en el frontón.

- EL CLUB deberá de evitar aglomeraciones tanto en el acceso como en la salida del público, asegurando en todo momento que se realizarán de forma ordenada, manteniendo las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla. Para ello deberá de disponer del personal y del material de conteo necesario en las entradas y salidas de la instalación.

- LA INSTALACIÓN deberá fijar unas rutas de circulación de sentido único, tanto en el recinto como en los accesos y salidas.

- LA INSTALACIÓN deberá realizar una limpieza y desinfección exhaustiva de los vestuarios, de las localidades destinadas al pubilco, de los aseos y de todo espacio que tenga contacto con el publico previa y posteriormente a la disputa de cualquier festival.

- LA INSTALACIÓN deberá disponer de los elementos necesarios para la higiene de manos en la entrada de la instalación, así como en las entradas de los aseos y baños.

- Será responsabilidad de EL CLUB que los y las pelotaris cumplan las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla fuera de la competición y/o calentamiento.

- Será responsabilidad de EL CLUB que los y las técnicas cumplan las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla.

- Las pelotas a utilizar en el partido las proporcionará EL CLUB y/o los clubes contrarios. Será responsabilidad de los mismos desinfectar las suyas al finalizar el encuentro con el producto adecuado para ello; el material necesario lo aportará cada club.

- Sariak emateko zeremonia egiten bada, honako irizpide hauen arabera egin beharko da:

    - KLUBAaren ardura izango da sari-banaketan parte hartzen duten guztiek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.
    - Banatu beharreko sari guztiak (kopak, dominak, txapelak) KLUBAk berak ekarritako produktu egokiekin desinfektatu beharko ditu aldez aurretik.

- KLUBAk ezin izango ditu jarduera ludiko edo komertzial paraleloak antolatu, adibidez, zozketak.

OHARRA: instalazioa estalia bada, erantsi.

- Jendearen edukierari eta antolamenduari dagokienez:

    - INSTALAZIOAk kartelen bidez adierazi beharko du pilotalekuaren gehieneko edukiera.
    - KLUBAk beharrezko laguntzaileak izango ditu INSTALAZIOAk horretarako prestatutako eserlekuetan ikusleak kokatzeko. Pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak bete beharko dira.
    - KLUBAren erantzukizuna izango da zutik jenderik ez egotea.
    - KLUBAren erantzukizuna izango da jaialdia egiten den unean Eusko Jaurlaritzak baimendutako edukiera eta gehieneko edukiera ez gainditzea.

OHARRA: instalazioa aire zabalekoa bada, erantsi.

- Jendearen edukierari eta antolamenduari dagokienez:

    - INSTALAZIOAk kartelen bidez adierazi beharko du pilotalekuaren gehieneko edukiera.
    - KLUBAren erantzukizuna izango da ikusleak, hala badagokio, INSTALAZIOAk horretarako prestatutako eserlekuetan esertzea. Frontoiak eserlekurik ez badu, edo eserleku librerik ez badago, ikusleak

- En caso de llevar a cabo ceremonia de entrega de premios ésta deberá de realizarse atendiendo a los siguientea criterios:

    - Será responsabilidad de EL CLUB que todos los participantes en la entrega de premios cumplan las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla.
    - Todos los premios (copas, medallas, txapelas...) a repartir deberán de ser previamente desinfectados por EL CLUB con los productos apropiados, aportados por el mismo.

- EL CLUB no podrá organizar actividades lúdicas o comerciales paralelas, como por ejemplo, rifas.

NOTA: añadir en caso de que la instalación sea cerrada.

- Respecto del aforo y la disposición del público:

    - LA INSTALACIÓN deberá de indicar mediante carteles el aforo máximo del frontón.
    - EL CLUB dispondrá del personal necesario para acomodar a los y las espectadoras en los asientos preparados a tal fin por LA INSTALACION. Se tendrán que cumplir las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla.
    - Será responsabilidad de EL CLUB que no haya público de pie.
    - Será responsabilidad de EL CLUB que no se supere el porcentaje del aforo y el aforo máximo autorizado por el Gobierno Vasco en el momento de la celebración del festival.

NOTA: añadir en caso de que la instalación sea al aire libre.

- Respecto del aforo y la disposición del público:

    - LA INSTALACIÓN deberá de indicar mediante carteles el aforo máximo del frontón.
    - Será responsabilidad de EL CLUB que los y las espectadoras, en su caso, se sienten en los asientos preparados a tal fin por LA INSTALACION. En caso de que el frontón no disponga de asientos, o no haya asientos libres podrá haber

zutik egon ahal izango dira. Edozein kasutan, KLUBAren erantzukizuna izango da horiek pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskararen erabilerari buruz indarrean dauden neurriak betetzea.

- KLUBAren erantzukizuna izango da jaialdia egiten den unean Eusko Jaurlaritzak baimendutako edukiera eta gehieneko edukiera ez gainditzea.

espectadores y espectadoras de pié. En todos los casos, será responsabilidad de EL CLUB que éstos y éstas cumplan las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla.

- Será responsabilidad de EL CLUB que no se supere el porcentaje del aforo y el aforo máximo autorizado por el Gobierno Vasco en el momento de la celebración del festival.

OHARRA: instalazioak udaleko langileak baditu, erantsi.

NOTA: añadir en caso de que la instalación disponga de personal del ayuntamiento.

- Ahalegina egingo da INSTALAZIOAren langileak ez daitezen gurutzatu jaialdia antolatzen duen klubeko arduradunekin, eta, ezinbestekoa bada, honek solaskide bakarra izendatuko du. Solaskide horrek uneoro bete beharko ditu pertsonen arteko distantzia fisikoari eta maskara erabiltzeari buruz indarrean dauden neurriak, INSTALAZIOAren langileekin jardutean.

- Se procurará que el personal trabajador de LA INSTALACIÓN no se cruce con los y las responsables del club organizador del festival y, en caso que sea indispensable, éste designará un o una única interlocutora que en todo momento deberá de cumplir las medidas en vigor sobre distancia física entre personas y uso de mascarilla a la hora de tratar con el personal laboral de LA INSTALACIÓN.

OHARRA: instalazioak taberna badu, erantsi.

NOTA: añadir en caso de que la instalación disponga de bar.

- Taberna-zerbitzuan sektore horretarako indarrean dauden segurtasun-murrizketa eta neurri guztiak mantenduko dira.

- En el servicio de bar se mantendrán todas las restricciones y medidas de seguridad vigentes para este sector.

**ARRAIA-MAEZTUKO UDALAREN ALKATEA – ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE ARRAIA-MAEZTU**

Anartz Gorrotxategi Elorriaga

**MAEZTUKO EUSKAL PILOTA KLUBAREN PRESIDENTEA-PRESIDENTE DEL CLUB DE PELOTA VASCO DE MAESTU**

Alfredo Fernandez de Jauregui Larrauri